



Georgiak asmatu du



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

COVID-19aren krisiaren harira Mendebaldean etengabe egon da etsai bezala tratatzen dituen herrialdeez gaizki esaka, Txina kasu. Honek ondo egin ditu bere etxeko lanak, eta horri esker, munduko lidergoaren borrokan, krisi honi dagokionean, aurre hartu die AEBei beste arlo batzuetan egin duen bezala: 5G teknologian, inteligentzia artifizialean eta auto autonomoetan.

Mendebaldearen harrokeria ez da bakarrik bere etsaiekin adierazten, gai-nontzeko herrialdeekiko nolabaiteko mespretxua azaltzen du ez-ikusierena eginez. Adibidez, Vietnamek erantzun oso arrakastatsua eman dio COVID-19aren mehatxuari, baina ezer gutxi kontatu dute hedabideek. Antzera gertatzen da Georgiarekin, Vietnameko kasuan bezala bere arrakastaren gakoak izan ziren aurrea hartzea eta gehiegizko konfiantzarik gabe jardutea beharrezko neurriak hartu ahal izateko.

Georgia 3,7 milioi biztanleko herrialde txikia da, urteko 4.000 euro eskaseko per capita errenta du eta osasun sistema publiko integralik gabe, populazioaren gehiengo zabalak sistema pribatua erabiltzen du koordainketa eskatu ohi duten osasun aseguruarekin. Halere, Georgian erakundeek Hego Euskal Herrikoek baina askoz ere hobe egin diote aurre krisi sanitarioari.

Urtarrilean egoera berriari aurre egiteko Georgiak neurriak hartu zituen: material sanitarioa erosten, informa-

Vietnameko kasuan
bezala bere arrakastaren
gakoak izan ziren
aurrea hartzea eta
gehiiegizko konfiantzarik
gabe jardutea beharrezko
neurriak hartu
ahal izateko

zio kanpainak abiatzen, aireportuetan bidaiariei osasun kontrolak egiten eta koarentenak antolatzen hasi zen. Hilabete amaierarako herrialde kaukasiarrak bazuen COVID-19a identifikatzeko eta diagnostikatzeko gaitasuna. Otsailan, Txinatik, Iranetik, Hego Koreatik eta Italiatik zetozen bidaiariak koarenten jartzen zituzten. Martxo hasieran zerrenda horretara batu ziren, besteak beste, Espainia, Frantzia eta Alemania.

Georgian koarentenak benetakoak dira. Estatuak lau edo bost izarretako hotel batean jartzen zaitu eta hamargarren egunean zure irteera prestatzeko COVID-19aren testa egiten dizu. Hemen berriz, berandu jarri zitzaizkien bidaiariei koarentenaren beharra, eta berez, auto-koarentena ez antolatu bat da. Modu berean, maiatzaren erdialdera arte, gurean pertsona batek konplikazio handirik gabeko sukarra bazuen eta sen-

dagileari komunikatzen bazion, honek auto-koarentena bat jartzen zion. Berriz, hasieratik Georgian sintomaren bat izan dezakeen edozein pertsonari testa doan egiten zaio eta eduki dituen kontaktu guztien arrastoa ikertzen da.

Martxoaren 2an, Georgiak hiru kasu baino ez zituenean, hezkuntza sistema irakaskuntza ez-presentzialera pasa zen. EAEn berriz, Araba izan zen lehena eskola presentzialak bertan behera utzi zituen martxoaren 10ean. Harrigarria zen ikustea nola gasteiztar bat ezin zen unibertsitatara joan bere hirian, baina bai ordea, Leioara edo Donostiara. Bestalde, azpimarratu behar da une horretan Arabak 153 kasu zituela diagnostikatuak. Neurria Bizkaira eta Gipuzkoara martxoaren 13an zabaldu zen, 417 kasu diagnostikatuak zeudenean.

Ondoren alarma egoerak sartu ziren indarrean Euskal Herrian eta Georgian. Azken honetan, konfinamendua inoiz ez da izan gurean bezain gogorra, tokian tokiko salbuespenekin, oro har, gure 0 eta 1 fasearen arteko egoerak izan dituzte. Egun Georgian alarma egoera bukatuta dago, ez da harritzeko lortu dituzten datu onak kontutan hartuta: kutsatuak 731 eta hildakoak 12. Bitartean gure datu txarrak ezin dira esplikatzen fenomeno klimatologiko bat izango balitz bezala, birusaren eta salbuespenezko erantzunen atzean okerreko neurri publikoak eta erantzukizun politikoak ezkutatzen ari dira. ●